

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## San Fernandoren bost Gurutze Ohoratu kendu dituzte Nafarroako Gobernuaren eraikinetatik

*Nafarroako Jauregiaren Bilera Aretotik lau kendu dituzte eta Ogasuneko eraikinaren beirate batetik bosgarrena*

Asteartea, 2018.eko azaroak 20

Nafarroako Gobernuak Memoriaren Institutuaren eta Ogasuneko eta Finantza Politikako Sailaren bitartez San Fernandoren Gurutze Ohoratuak kendu ditu Ogasuneko bulegoetan eta Nafarroako Jauregiaren Bilera Aretotan zeuden Nafarroako bost armarrietatik.

Nafarroako Gobernuak erregimen frankistaren sinboloak kendu eta ordeztu ditu, memoriari buruzko politika publikoekin aurrera egin eta Sinboloei eta Memoria Historikoari buruzko Foru Legeak betetze aldera. Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioarekin eta tokiko hainbat erakunderekin batera, programa bat abiarazi zuen 2016an, espazio publikoa demokratizatzeko eta indarkeria gogoratzen eta goraiatzeko duten sinboloak kentzeko helburuarekin.



Gobernuaren Bilera Aretoa, armarrira arautegira egokitu eta gero.

Gurutze Ohoratuak Francisco Francok Nafarroari 1937an emandako intsigniak dira, 1936ko kolpe militarra boluntarioko babestu zuten nafarrei omenaldia egin eta esker ona emateko. Gurutze horiek Bilera Aretorearen egurrezko kasetoiduran eta Ogasuneko eta Finantza Politikako eraikinaren beiratean zeuden jarrita.

### **Beiratea eta kasetoidura**

Artisau beiragile batek Ogasuneko Eraikinaren leiho batean dagoen beiratean aldaketak egin eta gurutzearen piezak aldatu dizkio. Bestalde, zaharberitze-lanetan espezializatuta dagoen enpresa batek Bilera Aretoko izkina bakoitza dekoratzen zuten armarriez aparte jarrita zegoen gurutzearen egurrezko piezak kendu ditu, eta kasetoiduraren pusketa horiek zaharberitu ditu. Foru Gobernua asteazkenero biltzen da Bilera Areto horretan, asteroko bilera egiteko.



Ogasuneko eraikinaren beiratea, egokitze-lanak egin eta gero


## **Galería de fotos**



Salón de Sesiones, antes de la adecuación del escudo.



Vidriera de Hacienda, antes de los trabajos de retirada de la Cruz y Laureada.



Detalle de restauración del escudo del Salón de Sesiones.



Detalle del escudo del Salón de Sesiones, antes de su restauración.



Detalle del escudo, tras la restauración.